

TEKNOLOGIA

Mugikorra eskuan...



DIANA FRANCO

... eta ibili munduan. Oporrak niretzako pantaila gabeko tartea izan ohi dira, baita esperientzia berriak gozatzeko tartea ere. Esperientzia berrien bila, atzerrira bidaiari joan naiz aurtan eta nire pantaila gabeko oporren ideia alde batera utzi behar izan dut. Arrazoia, digitalizazioak dakarren erosotasuna eta atzerrira bidaiari konplexu bat, non hornitzaile askorekin harremanetan jarri behar nuen. Motxila txiki batekin bidaiatuz, mugikorra izan da nire tresna bakarra, eta denetarako erabili dut: itzulpenak egiteko, atzerriko diruaren balioa jakiteko, gastuak kontrolatzeko, autoa eta logela alokatzeko, hegaldiak hartzeko, sarrerak erosteko... Hornitzaile eta bezero arteko harreman guztiak digitalizatuta egon daitezkeela ulertu dut munduko leku baztertuen ere; turismoan oinarrituriko enpresa txikienak ere izan dezake bere negozio ereduaren zati handia digitalizazioari esker garatuta.

Hori dena oso ondo dago, eta transakzio ekonomikoei begira bizitza errazten digu, baina ohartzen naiz joan naizen zenbait lekutan harreman gutxi izan dudala hango pertsonekin, eta uste dut leku baten izaera eta kultura hautemateko bertakoa kontsumitzea ez dela nahikoa, bertan bizi direnekin harremanetan jartzea dela bide onena. Turismoaren izaera da pertsonen kontsumo ahalmena leku batetik bestera mugitzea, esperientziaren ideiarri lotuta. Zoritzarrez esperientzia hori modu masiboan bilatzen dugu gizakiok, eta digitalizazioak aukera hori baliatzen du modu erosoago eta eraginkorragoan. Horrela, oporraldia, esperientziak izatea baino, kontsumoaldi bilakatzen da askotan. Hemen ere oreka bilatu behar dugu, batzuetan bidaiari izango gara eta bestetan turista, sarri jokatzeko dugun rolaz kontziente izan gabe. ●

“Bilboko konpartsekin ez dut segurtasunaren inguruan hitz egingo”

JUAN MARI ABURTO

Bilboko alkatearen hitzak dira, konpartsek biolentzia poliziala eta erasoak salatu ostean, tartean manteroen aurkako erasoak eta propaganda politikoa kentzea.

RADIO EUSKADI (2023-08-25)



“SALBUESPENEZKO LEGERIA MODU IRMOAN APLIKATZEN JARRAITZEN DUTE, ZIGORRAK OSOTASUNEAN BETETZEA BAINO EZ DUTE BILATZEN”

SARE HERRITARRA

Auzitegi Nazionalaren jarrera “oztopatzailea” salatu du plataformak.

2023-08-18

“Legalki, ‘fetu hilak’ edo ‘abortu-hondarrak’ izateari utzi diote gure umeei, aitortza jaso dute, eta inportantea da dolu prozesurako”

EIDER OTXOA

Esku Hutsik elkarteko kidea, Espainiako lege berriaz. Sei hilabeteko gestazioaren ostean hil diren umeei erregistro zibilean inskribatu ahal izango dira hemendik aurrera.

ARGIA.EUS (2023-08-22)

